2. La puntuación máxima que se puede obtener es de 60 puntos.

3. Se establecen dos fases diferenciadas de valoración:

Fase 1: se valorará la calidad del proyecto o actividad presentado, y su contribución a las finalidades que son objeto de esta subvención, hasta un máximo de 30 puntos.

2. fasea: aurkeztutako aurrekontuaren egokitasuna, erakunde edo profesional eskatzailearen ibilbidea eta zeharkako irizpideak baloratuko dira, hala nola hizkuntza ofizialen erabilera eta genero berdintasuna; 30 puntu, gehienez.

4. Aztertutako eskaerak gutxienez 15 puntu lortu beharko ditu 1. fasean, 2. fasean kontuan hartu ahal izan dadin.

5. Halaber, eskabideak gutxienez 30 puntuko balorazioa lortu beharko du bi faseetako puntuak batuta, proiektua edo jarduera emakida proposamenean sartu ahal izan dadin.

6. Gutxieneko puntuazio partziala edo osoa lortzen ez duten eskabideak ezetsi egingo dira, lurraldeko ekosistema kulturalari ekarpen garrantzitsurik egiten ez diotelakoan.

Fase 2: se valorará la idoneidad del presupuesto presentado, la trayectoria de la entidad o profesional solicitante, así como criterios transversales como la utilización de las lenguas oficiales y la igualdad de género, hasta un máximo de 30 puntos.

4. La solicitud analizada deberá obtener un mínimo de 15 puntos en la fase 1 para poder pasar a considerarse en la fase 2.

5. La solicitud a su vez deberá obtener una valoración mínima de 30 puntos en la suma de las dos fases para que el proyecto o actividad sea incluido en la propuesta de concesión.

6. Las solicitudes que no alcancen la puntuación parcial o total mínima serán desestimadas por considerar que no suponen una contribución relevante y significativa al ecosistema cultural del territorio.

7.

7.1: 1. fasea

| *a) irizpidea* | *Haztapena* |
|---|---|
| Proiektatutako jarduera 1. oinarrian aurreikusitako helburuak lortzeko egokia izatea. | Erabateko egokitasuna: 10 p.<br>Egokitasun nabarmena: 7 p. |
| Gehienez lortu daitekeen puntuazioa: 10 puntu. | Egokitasun ertaina: 5 p.<br>Egokitasun eskasa: 2 p. |

| *b) irizpidea* | *Haztapena* |
|---|---|
| Aurkeztutako proiektuaren edo jardueraren kalitatea. Horretarako, haren interesa, berezitasuna eta izaera berritzailea aztertuko dira. | Kalitate bikaina: 10 p.<br>Kalitate ona: 7 p. |
| Gehienez lortu daitekeen puntuazioa: 10 puntu. | Kalitate ertaina: 5 p.<br>Kalitate eskasa: 2 p. |

| *c) irizpidea* | *Haztapena* |
|---|---|
| Lurraldearen gaineko inpaktu maila: proiektuak edo jarduerak hiriz besteko ingurunean izan dezakeen inpaktua ebaluatuko da. | 3 xede udalerritan edo gehiagotan eragiten du: 5 p. |
| Gehienez lortu daitekeen puntuazioa: 5 puntu. | 2 xede udalerritan eragiten du: 3 p.<br>1 xede udalerritan eragiten du: 2 p. |

| *d) irizpidea* | *Haztapena* |
|---|---|
| Lurraldeko eragile eta artistek parte hartzen dute proposamenean. | Parte hartze nabarmena: 5 p.<br>(gutxienez 5 artista edo jarduera desberdin) |
| Gehienez lortu daitekeen puntuazioa: 5 puntu. | Parte hartze ertaina: 3 p. (gutxienez 3 artista edo jarduera desberdin)<br>Parte hartze ez-nabarmena: 1 p. (artista edo jarduera bakarra) |

1. fasean gutxienez 15 puntu lortu dituzten proposamenak bakarrik hartuko dira kontuan 2. fasean

7.2: 2. fasea

| *e) irizpidea* | *Haztapena* |
|---|---|
| Jarduera edo programa aurrekonturako egokia izatea; horretarako, programaren eta aurkeztutako aurrekontuaren arteko oreka aztertuko da, bai eta programaren bideragarritasun teknikoa eta finantzarioa ere. | Egokitasun eta bideragarritasun handia: 5 p. |
| Gehienez lortu daitekeen puntuazioa: 5 puntu. | Egokitasun eta bideragarritasun ertaina: 2,5 p.<br>Egokitasun eta bideragarritasun eskasa: 0 p. |

| *f) irizpidea* | *Haztapena* |
|---|---|
| Eskatzailearen ibilbidea eta eskarmentua; horretarako, haren ibilbide profesionala balioetsiko da, bai eta zer ekonomia- eta antolaketa-gaitasun dituen. | 10 urtetik gorako ibilbidea: 3 p. |
| Gehienez lor daitekeen puntuazioa: 5 puntu. | 5-10 urte artekoa: 2 p.<br>5 urtetik beherakoa: 1 p. |

Lortutako puntuazioei beste 2 puntu gehitu ahal izango zaizkie, gehienez ere 5 puntu lortu arte, baldin eta eskatzailearen kaudimen ekonomikoa eta antolaketarako egokia jotzen bada aurkeztutako proiektuaren edo jardueraren tamainarako

EK\CV GAO-I-2022-05402

| g) irizpidea | Haztapena |
|---|---|
| Aurkeztutako proiektu edo jardueraren iraunkortasuna; horretarako, proiektu edo jardueraren jarraitutasun bokazioa eta berau epe ertain-luzean mantentzeko dauden aukerak baloratuko dira. | Potentzial handia: 5 p. |
| Gehienez lortu daitekeen puntuazioa: 5 puntu. | Potentzial ertaina: 3 p.<br>Potentzial eskasa: 1 p. |

| h) irizpidea | Haztapena |
|---|---|
| Aurkeztutako proiektuan genero ikuspegia integratzea. | Integrazio oso ona: 5 p. |
| Gehienez lortu daitekeen puntuazioa: 5 puntu. | Integrazio ertaina: 2,5 p.<br>Integrazio eskasa: 1 p. |

| i) irizpidea | Haztapena |
|---|---|
| Euskararen presentzia aurkeztutako proiektuan. | Proiektua euskaraz garatzen da oso-osorik: 5 p. |
| Gehienez lortu daitekeen puntuazioa: 5 puntu. | Proiektuaren zati handi bat euskaraz garatzen da: 2,5 p.<br>Euskararen presentzia ez da esanguratsua: 1 p. |

| j) irizpidea | Haztapena |
|---|---|
| Proiektuak eragin ditzakeen inpaktu guztiak neurtzeko eta ebaluatzeko tresnak txertatzea: kulturan, ekonomian, gizartean, demografian, lurraldean, bizi kalitatean, ingurumenaren jasangarritasunean, eta abar. | 5 adierazle esanguratsu edo gehiago aztertzen dira: 5 p.<br>3-5 adierazle bitarte aztertzen dira: 3 p. |
| Gehienez lortu daitekeen puntuazioa: 5 puntu. | 2 adierazle edo gutxiago aztertzen dira: 1 p.<br>Ez da adierazleen azterketarik sartu: 0 p. |

7.

7.1: Fase 1

| Criterio a) | Ponderación |
|---|---|
| Adecuación de la actividad proyectada al logro de las finalidades previstas en la base 1. | Adecuación total: 10 p.<br>Adecuación notable: 7 p. |
| Puntuación máxima posible: hasta 10 puntos. | Adecuación media: 5 p.<br>Escasa adecuación: 2 p. |

| Criterio b) | Ponderación |
|---|---|
| Calidad del proyecto o actividad presentado, para lo cual se analizará su interés, singularidad y carácter innovador. | Calidad excelente: 10 p.<br>Calidad notable: 7 p. |
| Puntuación máxima posible: hasta 10 puntos. | Calidad media: 5 p.<br>Escasa calidad: 2 p. |

| Criterio c) | Ponderación |
|---|---|
| Grado de impacto en el territorio: se evaluará el impacto potencial del proyecto o actividad en el medio no urbano. | Impacta en 3 o más municipios objetivo: 5 p. |
| Puntuación máxima posible: hasta 5 puntos. | Impacta en 2 municipios objetivo: 3 p.<br>Impacta en 1 municipios objetivo: 2 p. |

| Criterio d) | Ponderación |
|---|---|
| Participación de agentes y artistas del territorio en la propuesta. | Presencia relevante: 5 p. (al menos 5 artistas-actuaciones diferentes) |
| Puntuación máxima posible: hasta 5 puntos. | Presencia media: 3 p. (al menos 3 artistas-actuaciones diferentes)<br>Presencia no relevante: 1 p. (un solo artista-actuación) |

Sólo se considerarán en la fase 2 las propuestas que hayan alcanzado un mínimo de 15 puntos en la fase 1

7.2: Fase 2

| *Criterio e)* | *Ponderación* |
|---|---|
| Adecuación presupuestaria de la actividad o programa, para lo que se analizará el equilibrio entre el programa y el presupuesto presentados, así como su viabilidad técnica y financiera. | Alta adecuación y viabilidad: 5 p. |
| Puntuación máxima posible: hasta 5 puntos. | Adecuación y viabilidad media: 2,5 p.<br>Escasa adecuación y viabilidad: 0 p. |

| *Criterio f)* | *Ponderación* |
|---|---|
| Trayectoria y experiencia del solicitante, para lo que se valorará su trayectoria profesional, así como su capacidad económica y organizativa. | Trayectoria superior a 10 años: 3 p. |
| Puntuación máxima posible: hasta 5 puntos | Entre 5 y 10 años: 2 p.<br>Menor a 5 años: 1 p. |

Las puntuaciones obtenidas se podrán incrementar con 2 puntos adicionales, hasta alcanzar el máximo de 5 puntos si se considera que la solvencia económica y organizativa de la persona solicitante es adecuada a la magnitud del proyecto o actividad presentado

| *Criterio g)* | *Ponderación* |
|---|---|
| Sostenibilidad del proyecto o actividad presentado, valorando la vocación de continuidad y posibilidades de sostenibilidad del proyecto o actividad a medio-largo plazo. | Alto potencial: 5 p. |
| Puntuación máxima posible: hasta 5 puntos | Potencial medio: 3 p.<br>Escaso potencial: 1 p. |

| *Criterio h)* | *Ponderación* |
|---|---|
| Integración de la perspectiva de género en el proyecto presentado. | Muy buena integración: 5 p. |
| Puntuación máxima posible: hasta 5 puntos. | Mediana integración: 2,5 p.<br>Escasa integración: 1 p. |

| *Criterio i)* | *Ponderación* |
|---|---|
| Presencia del euskera en el proyecto presentado. | El proyecto se desarrolla integralmente en euskera: 5 p. |
| Puntuación máxima posible: hasta 5 puntos. | El proyecto se desarrolla en una parte significativa en euskera: 2,5 p.<br>La presencia del euskera no es significativa: 1 p. |

| *Criterio j)* | *Ponderación* |
|---|---|
| Incorporación de herramientas de medición y evaluación de los distintos impactos del proyecto: cultural, económico, social, demográfico, territorial, calidad de vida, sostenibilidad medioambiental y otro. | Se analizan 5 o más indicadores relevantes: 5 p.<br>Se analizan de 3 a 5 indicadores: 3 p. |
| Puntuación máxima posible: hasta 5 puntos. | Se analizan 2 o menos indicadores: 1 p.<br>No se incorpora análisis de indicadores: 0 p. |

*8. oinarria. Diruz lagundutako jardueren finantzaketa.*

1. Oinarri hauetan arautzen laguntzak finantzatuko dituzten funtsak Estatuko Aurrekontu Orokorretatik datoz, eta EAEko Administrazio Orokorraren bidez helarazi zaizkio Gipuzkoako Foru Aldundiari, Europar Batasunaren Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren barruan, C24.I2.P1 osagaia garatzeko; hau da, «Hiriz besteko eremuetan kultura eskaintza handitzeko eta dibertsifikatzeko laguntzak».

Funts horien jatorria «Next Generation» Suspertze Funtsak dira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduak, 2021eko otsailaren 12koak, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duenak, garatutako arau esparruaren helburuekin bat etorriz.

2. Laguntzaren gehieneko zenbatekoa diruz lagundu daitezkeen kostuen % 80 izango da, Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 53.8 artikuluaren arabera.

*Base 8. Financiación de las actividades subvencionadas.*

1. Las ayudas reguladas en estas bases se financiarán con los fondos trasladados a la Diputación Foral de Gipuzkoa a través de la Administración General de la CAE, desde los Presupuestos Generales del Estado, dentro del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia de la Unión Europea para desarrollar el componente C24.I2.P1, correspondiente a las «Ayudas para ampliar y diversificar la oferta cultural en áreas no urbanas».

Estos fondos provienen del Fondo de Recuperación «Next Generation», de acuerdo con los objetivos del marco normativo desarrollado en el Reglamento (UE) 2021/241 del Parlamento europeo y del Consejo, de 12 de febrero de 2021, que establece el Mecanismo de Recuperación y Resiliencia.

2. El importe máximo de la ayuda se fija en el 80 % de los costes subvencionables de conformidad con el artículo 53.8 del Reglamento UE 651/2014 de la Comisión de 17 de junio de 2014.

EK\CV GAO-I-2022-05402

3. Oinarri hauen xede diren dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu bereko beste dirulaguntza, laguntza edo baliabide batzuekin, edozein dela horiek ematen dituen administrazioa edo erakunde publiko zein pribatua, estatukoa, Europar Batasunekoa edo nazioartekoa, hurrengo apartatuetan ezarritakoa alde batera utzi gabe.

4. Dirulaguntzaren zenbatekoa ezingo da izan, ez bera bakarrik, ez beste diru laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batuta, diruz lagundutako jardueraren kostu osoa baino handiagoa.

5. Oinarri hauetan jasotako dirulaguntzak bateragarriak dira estatuko laguntzekin, Europako Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 Erregelamenduaren 53. artikuluaren arabera. Erregelamendu horren bidez, laguntzen hainbat kategoria bateragarritzat jotzen dira barne merkatuarekin, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren (EBFT) 107. eta 108. artikuluak aplikatuz (EBAO, L 352. zk., 2013/12/24koa).

6. Oinarri hauetan jasotako dirulaguntzak bateraezinak dira Europar Batasuneko egiturazko beste funts batzuetatik finantzaketa jasotzearekin, bi laguntzak kostu berberak estaltzeko erabiltzen badira, 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 9. artikuluan xedatutakoaren arabera.

7. Balio Erantsiaren gaineko zerga (BEZa) ezin izango da hartu diruz laguntzeko moduko gastutzat, erakunde onuradunak zenbateko hori berreskuratu ahal badu.

*9. oinarria. Dirulaguntzaren zenbatekoaren kalkulua eta mugak.*

Gutxieneko puntuazioa lortu eta balorazio onena lortu duten eskabideak lagunduko dira diruz, baldin eta gutxienez 3 proiektu diruz lagundu badira, balorazio horren ordenaren eta puntuazioaren arabera, esleipen ekonomikoa agortu arte.

Dirulaguntzaren mugak:

— 25.000 € gutxienekoa.

— Gehienez ere gastu eta aurrekontu araztuen % 80.

— Gehienez ere Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatutako zenbatekoa.

Onuradunen batek dirulaguntzari uko egiten badio edo ez badu onartzen, hobekien baloratutako hurrengo proiektua lagundu ahal izango da diruz, erabilgarri geratzen den zenbatekoan, eta horrela hurrenez hurren.

*10. oinarria. Izapidetzea.*

1. Dirulaguntzak emateko prozedura Kultura Zuzendaritza Nagusiko Liburutegiko eta Kultura Sustapen eta Hedapeneko Zerbitzuak izapidetuko du, organo kudeatzaile gisa, eta beharrezkotzat dituen ofiziozko jarduketa guztiak egingo ditu behar diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko, eta horien arabera ebazpen proposamena formulatzeko.

2. Izapide fasea hastean, Liburutegiko eta Kultura Sustapen eta Hedapeneko Zerbitzuak dirulaguntza eskaeraren hasierako ebaluazioa egingo du; hau da, egiaztatuko du eskatzaileak betetzen dituela dirulaguntzaren onuradun izateko ezarrita dauden baldintzak, eta osatua eta egokia dela aurkeztutako dokumentazioa.

3. Prozedura ebazteko proposamena kide hauez osatutako ebaluazio batzorde batek egingo du: laguntza lerro hauen ardura duen Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Liburutegiko eta Kultura Sustapen eta Hedapeneko zerbitzuburua eta zuzendaritza horri atxikitako bi teknikari. Ebaluazio batzordeak ebazpen proposamena egingo du, behar bezala arrazoituz, eta organo eskudunari helaraziko dio, ebazpena eman dezan.

*11. oinarria. Ebazpena.*

1. Ebazpen proposamena jaso ondoren, Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatuak ebatziko du emakida, foru agindu bidez. Ebazpen horrek amaiera emango dio prozedurari.

3. Las subvenciones objeto de las presentes bases serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin perjuicio de lo dispuesto en los apartados siguientes.

4. El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

5 Las subvenciones contempladas en las presentes bases son ayudas compatibles con las ayudas de estado según el artículo 53 del Reglamento 651/2014 de la Comisión de 17 de junio de 2014, por el que se declaran determinadas categorías de ayudas compatibles con el mercado interior, en aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea (TFUE) (DOUE, L n.º 352, de 24/12/2013).

6. Las subvenciones contempladas en las presentes bases son incompatibles con la cofinanciación por otros fondos estructurales de la Unión Europea siempre que ambas ayudas se destinen a cubrir los mismos costes, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 9 del Reglamento EU 2021/241.

7. El Impuesto sobre el Valor Añadio (IVA) no podrá ser considerado como gasto subvencionable, en caso de ser recuperable por la entidad beneficiaria.

*Base 9. Cálculo y límites del importe de la subvención.*

Serán subvencionadas aquellas solicitudes que, habiendo alcanzado la puntuación mínima, hayan resultado mejor valoradas, con un mínimo de 3 proyectos subvencionados, según el orden y la puntuación resultante de dicha valoración, hasta que se agote la consignación económica.

Límites de la subvención:

— Mínimo 25.000 €.

— Máximo 80 % de los gastos y presupuestos depurado.

— Máximo el importe solicitado a la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Si alguno de los beneficiarios renunciara o no aceptara la subvención, podrá ser subvencionado el siguiente proyecto mejor valorado en la cuantía que quede disponible, y así sucesivamente.

*Base 10. Instrucción.*

1. La instrucción del procedimiento de concesión de subvenciones, como órgano gestor de las mismas, corresponde al Servicio de Biblioteca, Promoción y Difusión Cultural de la Dirección General de Cultura, quien realizará de oficio cuantas actuaciones estime necesarias para la determinación, conocimiento y comprobación de los datos en virtud de los cuales debe formularse la propuesta de resolución.

2. La fase de instrucción se iniciará con la preevaluación que realice el Servicio de Biblioteca, promoción y difusión cultural, de la solicitud de subvención, que consistirá en la verificación del cumplimiento de las condiciones establecidas para adquirir la condición de beneficiaria de la subvención y de que la documentación presentada se encuentra completa y es correcta.

3. La propuesta de resolución del procedimiento se efectuará por una comisión evaluadora formada por el jefe/a del Servicio de Biblioteca, promoción y difusión cultural de la Dirección General de Cultura encargado de estas líneas de ayudas, y dos personas técnicas adscritas a dicha Dirección. La comisión evaluadora formulará la propuesta de resolución, debidamente motivada, que será elevada al órgano competente para resolver.

*Base 11. Resolución.*

1. Recibida la propuesta de resolución, el diputado foral del Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes resolverá la concesión mediante orden foral. Esta resolución pondrá fin al procedimiento.

EK\CV GAO-I-2022-05402

2. Ebazpena araututa dauden irizpide objektiboei erreferentzia eginez arrazoituko da, eta oinarri arautzaileetan xedatutakoaren arabera.

3. Dirulaguntza emateko ebazpenean, berariaz adierazi beharko da zein den dirulaguntzaren xedea; zer pertsona juridikori ematen zaion dirulaguntza; zein diren zenbatekoak, ordaintzeko modua eta epeak, eta oinarri arautzaileek eskatutako gainerako baldintzak eta betekizunak; eta zer eskabide baztertu diren eta zergatik.

4. Oinarri hauetan aurreikusten diren dirulaguntzak emateko prozedurari dagokionez, presuntziozko egintzak, halakorik bada, ezestekotzat hartu behar dira, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 25.1.a) artikuluan xedatutakoaren arabera.

5. Dirulaguntza emateko edo ukatzeko azken ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarki baten bidez jakinaraziko da, 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 17. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta erakunde eskatzaile bakoitzari jakinaraziko zaio.

*12. oinarria. Dirulaguntzak ordaintzea.*

Oro har, diruz lagundutako jarduera amaitzean ordainduko dira dirulaguntzak, 15. oinarrian adierazi bezala justifikatu ondoren.

Hala eta guztiz ere, kontuan hartuta hartzaileak nolakoak diren eta zer baliabide dituzten, programen helburuak zein diren, eta programak gauzatu aurretik dirua erabilgarri izan behar dutela haien garapena bideragarria izan dadin eta, hortaz, funtsak eman behar zaizkiela diruz lagundutako proiektuei ekin ahal izateko, ordainketa aurreratuak egin ahal izango dira, berme beharrik gabe, dirulaguntzari atxikitako jarduerak egin ahal izateko beharrezko finantzaketa gisa, onuradunak aldez aurretik eskatu eta horren beharra justifikatzen badu. Aurrerakin horiek proiektua hasten denetik aurrera ordaindu ahal izango dira, dirulaguntza emateko ebazpenean zehazten den moduan, baldin eta aurrekontu baliabiderik badago eta emandako dirulaguntza osoaren % 60 gainditzen ez badute, eta behar bezala justifikatu beharko dira.

Azken ordainketaren eskaera aurkezteko epea dagokion deialdian adieraziko da.

*13. oinarria. Pertsona juridiko onuradunen betebeharrak.*

1. Onuradunek nahitaez errespetatu eta bete beharko dituzte dirulaguntza hauek arautzen dituen arauditik eratorritako betebeharrak (17. oinarrian daude jasota), eta Europar Batasunak kofinantzatutako proiektuetan iruzurrari aurkako egiteko neurrien planetik eta Foru Gobernu Kontseiluaren 2021eko abenduaren 28ko erabakiak onetsitako iruzurraren aurkako adierazpen instituzionaletik eratorritako betebehar espezifikoak.

2. Onuradunen betebeharrak dira, gainera, ez bakarrik 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, eta hura garatzeko Erregelamenduak (apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuak onetsia) ezarritakoak, baizik eta baita oinarri arautzaile hauetan adierazitakoak ere, hauek, bereziki:

a) Dirulaguntzak emateko oinarri den proiektua gauzatzea, jarduera egitea edo portaera hartzea.

b) Dirulaguntza ematen duen organoaren aurrean justifikatzea, beharrezkoa gertatzen den unean, baldintzak eta betekizunak betetzen dituela, baita dirulaguntza emateko oinarri izan den jarduera egin duela edo helburua bete duela ere.

c) Dirulaguntza ematen duen organoak egiten dituen ikuskatze jarduerak onartzea, baita kontrol organo eskudunek egin ditzaketen egiaztapen eta finantza kontrolak ere, zeregin horietan eskatzen zaien informazio oro emanez.

2. La resolución se motivará, con referencia a los criterios objetivos de concesión que rigen, de conformidad con lo que dispongan las bases reguladoras.

3. En la resolución de concesión de la subvención se deberá hacer constar expresamente el objeto, las personas jurídicas a las que se concede la subvención, importe, forma y plazos de pago, y demás condiciones y requisitos exigidos por las bases reguladoras, así como las solicitudes excluidas y los motivos para dicha exclusión.

4. En relación con el procedimiento de concesión de las subvenciones objeto de estas bases, los actos presuntos que puedan producirse se entenderán desestimatorios, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 25.1.a) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

5. La resolución de concesión o, en su caso denegación, se notificará mediante anuncio publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, según lo establecido en el artículo 17 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y se comunicará individualmente a cada solicitante.

*Base 12. Abono de subvenciones.*

Con carácter general, las subvenciones se abonarán a la finalización de la actividad subvencionada, tras su justificación en los términos previstos en la base 15.

No obstante lo anterior, atendida la naturaleza y recursos de los destinatarios, la finalidad de los programas, que implican una necesidad de disponibilidad financiera antes de finalizar la ejecución que haga viable su desarrollo y por tanto, la necesidad de proveer fondos que permitan iniciar los proyectos subvencionados, se podrán realizar pagos anticipados, sin necesidad de garantía, como financiación necesaria para poder llevar a cabo las actuaciones inherentes a la subvención, previa solicitud y justificación de la necesidad por parte de la persona beneficiaria. Estos anticipos se podrán abonar siempre que existan disponibilidades presupuestarias, en la forma en que se determine en la resolución de concesión y no superen el 60 % del total de la subvención concedida, a partir de la iniciación del proyecto que, deberá justificarse convenientemente.

El plazo para presentar la solicitud de abono final se indicará en la correspondiente convocatoria.

*Base 13. Obligaciones de las personas jurídicas beneficiarias.*

1. Las personas beneficiarias están obligadas a respetar y cumplimentar las obligaciones que dimanan de la normativa reguladora de estas subvenciones, que se reflejan en la base 17 y las específicas del Plan de medidas antifraude en proyectos cofinanciados por la Unión Europea y de la declaración institucional contra el fraude, aprobado por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 28 de diciembre de 2021.

2. Además son obligaciones de las personas beneficiarias, además de las señaladas en la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y su Reglamento de desarrollo (aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril), las que se determinan en las presentes bases reguladoras, especialmente las siguientes:

a) Ejecutar el proyecto, realizar la actividad o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de las subvenciones.

b) Justificar ante el órgano concedente, en el momento que sea preciso, el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión o disfrute de la subvención.

c) Someterse a las actuaciones de comprobación a efectuar por el órgano concedente, así como cualesquiera otras de comprobación y control financiero que puedan realizar los órganos de control competentes, aportando cuanta información le sea requerida para ello.

EK\CV GAO-I-2022-05402

d) Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko, beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuk lortu izanaren berri ematea dirulaguntza ematen duen organoari. Jakinarazpena ahal bezain laster egin beharko da, eta, betiere, jasotako dirulaguntzari emandako erabilera justifikatu aurretik.

e) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzea.

f) Onuradunari indarrean diren arauetan kasu bakoitzean eskatzen zaizkion kontabilitate liburuak, erregistro diligentziatuak eta gainerako dokumentuak izatea, baita dirulaguntza mota bakoitzaren berariazko oinarrietan eskatzen diren kontabilitate egoerak eta erregistro bereziak ere, egiaztapen eta kontrol ahalmenak egoki beteko direla ziurtatzeko.

g) Jasotako dirulaguntzak erabili direla egiaztatzen duten agiriak gordetzea, egiaztapen eta kontrol jardueren xede izan baitaitezke, kasu honetan 10 urtez.

h) Komunikazio eta publizitate betebeharrak betetzea.

i) Diruz lagundutako jarduera guztietan betetzea 10/1982 Legeak, azaroaren 24koak, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoak, xedatutakoa, eta, oro har, euskaldunen hizkuntza eskubideak errespetatuz jokatzea.

j) Diruz lagundutako jarduera guztietan betetzea 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, eta 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoak, xedatutako printzipio orokorrak, bereziki alderdi hauei dagokienez: hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egitea eta generoaren adierazleak txertatzea diruz lagundutako jardueraren ebaluazio irizpideetan; eta 2/2015 Foru Arauak, martxoaren 9koak, gizonen eta emakumeen berdintasunerakoak, xedatutako printzipio orokorrak.

k) 16. oinarrian adierazitako kasuetan, jasotako dirua itzultzea.

l) Dirulaguntza eman duen organoari jakinaraztea dirulaguntza ematerakoan kontuan hartutako egoeretan izandako aldaketa oro.

m) Diruz lagundutako jarduera egiteko beharrezkoak diren baimen guztiak eskuratu eta haien xedapenak betetzea.

*14. oinarria. Komunikazio betebeharrak.*

1. EBren funtsen hartzaile guztiek dute jasotako finantzaketaren jatorria aitortzeko eta ikus daitekeela bermatzeko betebeharra.

2. Diruz lagunduko diren jarduerei buruzko publizitatean (informazio kartelak, plakak, argitalpen inprimatuak eta elektronikoak, ikus-entzunezko materiala, web orriak, prentsako iragarkiak eta oharrak, ziurtagiriak, etab.), instituzioen partaidetza adieraziko da, betekizun hauen arabera:

— Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren logotipo ofiziala, bai eta Europar Batasunaren ikurra ere, «Europar Batasunak finantzatua - Next Generation EU» testuarekin batera.

Ikurraz gain, ezingo da erabili beste identitate bisualik edo logotiporik EBren babesa nabarmentzeko.

— Gipuzkoako Foru Aldundiaren kasuan, erakundeak une horretan onartuta duen irudi korporatiboa.

3. Beste logotipo batzuekin batera agertzen direnean, logotipo horiek bezain nabarmenak eta ikusgarriak izan behar dute, desberdin eta bereiz mantendu beharko dira, eta ezingo dira aldatu beste ikusizko marka, marka edo testu batzuk erantsiz.

d) Comunicar al órgano concedente la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas. Esta comunicación deberá realizarse tan pronto como se conozca y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a la subvención percibida.

e) Hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

f) Disponer de los libros contables, registros diligenciados y demás documentos exigidos por la normativa aplicable a la persona beneficiaria en cada caso, así como cuantos estados contables y registros específicos sean exigidos por las bases reguladoras específicas de las subvenciones, con la finalidad de garantizar el adecuado ejercicio de las facultades de comprobación y control.

g) Conservar los documentos justificativos de la aplicación de las subvenciones recibidas, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control, que en este caso es de 10 anualidades.

h) Cumplir con las obligaciones de comunicación y publicidad.

i) Cumplir en las actividades subvencionadas con los principios establecidos por la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del uso del euskera, y actuar con respeto a los derechos lingüísticos de las personas vascoparlantes.

j) Cumplir en las actividades subvencionadas con los principios generales de la Ley 4/2005 del 18 de febrero de 2005, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, y la Ley Orgánica 3/2007, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres, en especial en lo que concierne a los siguientes aspectos: uso no sexista del lenguaje y de las imágenes, e inclusión de indicadores de género en los criterios de evaluación de la actividad subvencionada; y con los principios generales de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de hombres y mujeres.

k) Proceder al reintegro de los fondos percibidos en los supuestos contemplados en la base 16.

l) Comunicar al órgano concedente la modificación de cualquier circunstancia que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.

m) Obtener cuantas autorizaciones sean precisas para el desarrollo de la actividad subvencionada y cumplir sus determinaciones.

*Base 14. Obligaciones de comunicación.*

1. Todos los receptores de fondos de la UE tienen la obligación de reconocer el origen y garantizar la visibilidad de la financiación recibida.

2. Se hará constar en la publicidad que se realice sobre las actividades objeto de subvención (carteles informativos, placas, publicaciones impresas y electrónicas, material audiovisual, páginas web, anuncios e inserciones en prensa, certificados, etc.) la participación de las instituciones, conforme a los siguientes requisitos:

— Logotipo oficial del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, además del emblema de la Unión Europea acompañado del texto «Financiado por la Unión Europea - Next Generation EU».

A parte del emblema, no podrá utilizarse ninguna otra identidad visual o logotipo para destacar el apoyo de la UE.

— En el caso de la Diputación Foral de Gipuzkoa, imagen corporativa que la institución tenga aprobada en ese momento.

3. Cuando se muestren en asociación con otros logotipos, deben mostrarse de forma al menos tan prominente y visible como dichos logotipos, permanecer distintos y separados, y no pueden modificarse añadiendo otras marcas visuales, marcas o texto.

EK\CV GAO-I-2022-05402

4. Komunikaziorako materialak (logotipoak eta ikurrak) eta horiek erabiltzeko eskuliburuak webgune hauetan daude eskuragarri:

https://planderecuperacion.gob.es/identidad-visual.

https://www.gipuzkoa.eus/eu/aktualitatea/prentsa-bulegoa/prentsarako-baliabideak/identitate-korporatiboa.

*15. oinarria. Dirulaguntzak justifikatzea.*

1. Arau orokor gisa, eta beste formularen bat ezartzen ez bada, deialdi bakoitzean adierazitako moduan eta epean justifikatuko da, agiri bidez, dirulaguntza emateko egintzan ezarritako baldintzak bete eta aurreikusitako helburuak lortu direla.

2. Oinarri hauetan araututako dirulaguntzen onuradunek justifikazioko kontua aurkeztu ondoren eskatu beharko dute dirulaguntza ordaintzeko. Justifikazioko kontuak dokumentu hauek hartuko ditu barnean:

a) Egindako jardueren eta lortutako emaitzen justifikazio memoria zehatza, non azalduko baita zer ekarpen egin duen diruz lagundutako proiektuak aurreikusitako helburuak lortzeko. Parte hartzeari buruzko datuak sexuaren arabera bereizi beharko dira.

b) Egindako jardueren kostua justifikatzen duen memoria ekonomikoa, diruz lagundutako proiektuekin lotutako gastuak eta diru sarrerak zehatz-mehatz adierazita. Gastuetan hartzekoduna, dokumentua, zenbatekoa, igorpen data eta ordainketa data identifikatu beharko dira. Aurreikusitako jarduerarekiko desbideratzerik izan bada, adierazi eta azaldu egingo dira. Proiektuak, dirulaguntzarekin ez ezik, beste finantzaketa iturri batzuekin ere finantzatu badira, justifikazioan egiaztatu beharko da funts horien zenbatekoa, jatorria, eta diruz lagundutako jardueretarako aplikazioa.

c) Diruz lagundutako proiektuek aurreikusitako helburuak lortzeko zer ekarpen egin duten azaltzen duen memoria.

d) Egindako gastuen eta jasotako ordainketen egiaztagiriak.

e) Jarduera egiteko enplegatutako langileen kontratua eta Gizarte Segurantzako afiliazioa justifikatzeko agiriak.

f) Programa garatzeko egindako dokumentu grafikoak (kartela, esku programa, argazkiak...), formatu elektronikoan, publizitateari eta komunikazioari buruzko betebeharrak bete direla frogatzeko.

g) Erakunde eskatzailearen arduradunaren adierazpena, honako hauei dagokienez:

— Ekipoak, osagaiak, sistemaren integrazioak eta lotutako softwarea Europar Batasunean kokatutako hornitzaileei erosi zaizkiela.

— Proiektuak DNSH - Do No Significant Harm printzipioa bete duela, Gida Teknikoaren arabera (2021/C58/01) neurri egokiak hartu direla eta ebaluazio positiboa egin dela adierazita.

3. Gipuzkoako Foru Aldundiak egiaztatuko du onuradunak egunean dituela zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

4. Dirulaguntza hauen ardura duen zerbitzuak dirulaguntza behar bezala justifikatu dela egiaztatuko du, bai eta jarduera egin dela eta helburua bete dela ere, eta txostena idatziko du, Kultura Zuzendaritza Nagusiak, ebazpen bidez, dirulaguntzari dagokion azken ordainketa onar dezan.

5. Dirulaguntzak justifikatzeko agiriak 10 urtez gorde behar dira.

Los materiales de comunicación (logotipos y emblemas), así como sus manuales de uso, están disponibles en las siguientes webs:

https://planderecuperacion.gob.es/identidad-visual.

https://www.gipuzkoa.eus/es/actualidad/oficina-de-prensa/recursos-para-la-prensa/identidad-corporativa.

*Base 15. Justificación de las subvenciones.*

1. Como norma general, y salvo que se establezca alguna otra fórmula, la justificación del cumplimiento de las condiciones impuestas y de la consecución de los objetivos previstos en el acto de concesión de la subvención se documentará de la manera y en el plazo indicado en la correspondiente convocatoria.

2. Las personas beneficiarias de las subvenciones reguladas por las presentes bases deberán solicitar el abono de la subvención tras la presentación de la cuenta justificativa que contendrá los documentos siguientes:

a) Una memoria justificativa y detallada de las actividades desarrolladas y de los resultados obtenidos, explicando de qué manera el proyecto subvencionado ha contribuido al logro de las finalidades previstas. Los datos de participación deberán ser diferenciados por sexo.

b) Una memoria económica justificativa del coste de las actividades realizadas, con indicación detallada de los gastos e ingresos relacionados con los proyectos subvencionados. En los gastos deberá identificarse el acreedor o acreedora, el documento, su importe, fecha de emisión y fecha de pago. En caso de que haya habido desviaciones respecto a la actividad prevista, se indicarán y explicarán. Cuando los proyectos hayan sido financiados, además de con la subvención, con otras fuentes de financiación, deberá acreditarse en la justificación el importe, procedencia y aplicación de tales fondos a las actividades subvencionadas.

c) Memoria que explique de qué manera los proyectos subvencionados contribuiran al logro de las finalidades previstas.

d) Los justificantes de los gastos realizados y de los abonos recibidos.

e) Justificación documental de los contratos y afiliación a la seguridad social de las personas empleadas para la realización de la actividad.

f) Documentos gráficos (cartel, programa de mano, fotografías...) elaborados para el desarrollo del programa, en formato electrónico, probatorios de que se han cumplido las obligaciones en cuanto a publicidad y comunicación.

g) Declaración de la persona responsable de la entidad solicitante relativa a:

— Que los equipos, componentes, integraciones de sistema y software asociado han sido adquiridos a proveedores ubicados en la Unión Europea.

— Que el proyecto ha cumplido con el principio DNSH - Do No Significant Harm, indicando que se han tomado las medidas adecuadas y se ha realizado una evaluación positiva conforme a la Guía Técnica (2021/C58/01).

3. La Diputación Foral de Gipuzkoa comprobará que la persona beneficiaria se encuentra al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

4. El Servicio encargado de estas subvenciones comprobará la adecuada justificación de la subvención, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad y redactará informe para que por resolución la Dirección General de Cultura apruebe el abono final respecto a la subvención.

5. La documentación justificativa de estas subvenciones debe ser conservada durante 10 anualidades.

EK\CV GAO-I-2022-05402

*16. oinarria. Dirulaguntzak itzultzea.*

1. Jasotako diru kopuruak itzuli beharko dira eta berandutza interesak ordaindu beharko dira, dirulaguntza ordaindu zenetik itzuli behar dela erabakitzen denera bitartekoak, 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 35. artikuluko 1. eta 3. apartatuetan aurreikusitako kasuetan, eta, bereziki, kasu hauetan:

a) Dirulaguntza eskuratzeko, horretarako ezarrita dauden baldintzak faltsutzea edo dirulaguntza jasotzea galaraziko luketen baldintzak ezkutatzea.

b) Dirulaguntza emateko oinarri den helburua, jarduera edo proiektua osorik edo zati batean ez betetzea edo portaera ez hartzea.

c) Jasotako dirulaguntza justifikatzeko beharkizuna ez betetzea edo behar bezala ez justifikatzea, 15. oinarrian xedatutakoaren arabera.

d) Indarrean diren legeetan aurreikusitako egiaztapen eta kontrol finantzarioko jarduerei aurka egitea, aitzakiak jartzea edo uko egitea, baita kontabilitateari, erregistroari edo dokumentuak gordetzeari dagokienez dauden beharkizunak ez betetzea ere, horrek ezintasunik badakar dirulaguntzaren erabilera egiaztatzeko, helburua bete den jakiteko, diruz lagundutako jardueren benetakotasuna eta erregulartasuna ziurtatzeko, edo beste herri administrazioren batek edota erakunde publiko nahiz pribaturen batek, estatukoek, Europar Batasunekoek edo nazioartekoek xede berarekin emandako laguntza, dirulaguntza, sarrera edo baliabiderik jaso al den egiaztatzeko.

e) Onuradunek ez betetzea Administrazioak ezarritako beharkizunak, edota dirulaguntza ematean hartu zituzten konpromisoak, eraginik badute dirulaguntza emateko oinarri izan ziren helburuak betetzeko, proiektua gauzatzeko, jarduera egiteko edota portaera hartzeko moduan edo horri buruzkoak badira.

f) Era berean, jasotako funtsak itzuli beharko dira, abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 37.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, baldin eta ez badira betetzen Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren araudiari lotutako printzipio eta betebeharrak, mugarriak, helburuak, egutegia edo beste edozein alderdi, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduan ezarritakoa.

2. Onuradunaren betetze maila nabarmen hurbiltzen bada erabateko betetzera, eta onuradunak argi eta garbi egiaztatzen badu bere konpromisoak betetzeko asmoz jardun duela, itzuli beharreko zenbatekoa proportzionala izango da, eta egiteko utzi duen ehunekoaren araberakoa.

3. Emandako laguntza edo dirulaguntzen zenbatekoa, bera bakarrik edo beste administrazio publiko edo erakunde publiko nahiz pribatu nazional zein nazioarteko batzuek emandakoekin batera, onuradunak egin beharreko jardueraren kostua baino handiagoa bada, emakida ebazpena aldatu egingo da, eta, beharrezkoa bada, itzuli egin beharko da egindako jardueraren kostuaz gaindiko diru kopurua.

Bi administrazio publikoren edo gehiagoren dirulaguntzak lortzen direnean, baldin eta apartatu honetan aipatzen den soberakina gertatzen bada, ebazpena aldatuko da edo, beharrezkoa bada, dirua itzuliko da, administrazio bakoitzak emandako kopuruaren araberako hainbanaketa eginda.

4. Itzuli beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko sarreratzat hartuko dira.

*17. oinarria. Araubide juridikoa.*

Oinarri orokor hauetan aurreikusitakoaz gain, beste arau hauek aplikatuko dira: 3/2007 Foru Araua, martxoaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoa, eta horren Erregelamendua, 24/2008 Foru Dekretuak, apirilaren 29koak, onetsia.

*Base 16. Reintegro de subvenciones.*

1. Procederá el reintegro de las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora correspondiente desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro, en los casos previstos en los apartados 1 y 3 del artículo 35 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y de manera especial en los siguientes casos:

a) Obtención de la subvención falseando las condiciones requeridas para ello u ocultando aquéllas que lo hubieran impedido.

b) Incumplimiento total o parcial del objetivo, de la actividad, del proyecto o la no adopción del comportamiento que fundamenta la concesión de la subvención.

c) Incumplimiento de la obligación de justificación o la justificación insuficiente, en los términos establecidos en la base 15.

